

Informazio-orria

Emakida baten titulartasuna eskualdatzeko eskabidea

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen jabari Publiko Hidraulikoko ur kontinentalen (azalekoen nahiz lurpekoen) aprobetxamendu baten titulartasuna eskualdatzeko, eta, bestetik, adieraztea zer datu eta agiri aurkeztu behar duen horretarako.

1 Eskualdatzea nork eskatu behar duen

Aprobetxamendu baten titular berria den edozein pertsonak edo entitatek. Titulartasun aldaketa heriotzagatiko oinordetzaren ondorio denean, aldaketa egin eta hurrengo urtean aurkeztu beharko da eskaera; gainerako kasuetan, berriz, hiru hilabeteko epea egongo da eskaera aurkezteko, titulartasun-aldaketa egiten denetik hasita.

Titulartasuna eskualdatzeko ebazpena izapidetu gabe ura erabiliz gero, baliteke zehapena jartzea.

2 Nola eta non eskatzen den

Eskabide-eredu bat dago, eta han jasotzen da zer datu bete behar den eta zer agiri aurkeztu behar den espediente izapidetzeko. Eskabidea modu telematikoan bete daiteke, URAREN webgunean, edo izapidea aurrez aurre egin daiteke, eskabidea beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuta, hemen:

- **Arroen egoitza nagusiko edo bulegoetako sarrera-erregistroetan:**

1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

3 Donostia

- Intxaurrondo 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf>).**

3 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentazioa, ahal dela, euskarri digitalean aurkeztuko da.

Eskabide-eredua, behar bezala beteta.

- F.A-0003 Ezaugarriei eta erabilerari buruzko zinpeko adierazpena, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 146. artikuluan xedatutakoaren arabera egina. Bertan, interesdunak adieraziko du aprobetxamendua ustiatzeko moduan dagoen ala ez. Era berean, adieraziko du aurreko emakidan agertzen diren ezaugarriak eta une honetan daudenak bat datozen edo aldatu diren.

- ☐ Emakidaren segidako traktua egiaztatzen duen agiri publiko edo fede-emailea; edo, hori ezinezkoa bada, emakida-eskubidearen segidako traktua egiaztatzea ezinezkoa dela adierazten duen zinpeko adierazpena. Adierazpen horrekin batera, uren xede den ondasun higiezinaren jabetzaren edo eskubide errealaaren titulu frogagarriak aurkeztuko dira, edo, halakorik ezean, aprobetxamendurako beharrezkoak diren instalazioak.
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua:

Baimen-eskubidearen sinatzailea interesduna ez bada:

- a) Ordezkaritza bidez izapidetzen duten pertsona fisikoek notario-ahalorde baten bidez egiaztatu beharko dute ordezkaritza, edo, bestela, fede-emaile publikoaren aurrean sinatutako ordezkaritza-akta baten bidez. Bi aldeek sinatutako idazki bat ere onartuko da.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, berriz, beharrezkoa izango da notario-ahalordea eta erakundea eratzeke eskritura aurkezteko, bai eta ordezkaritza eskubidea sinatzea ere.
- c) Badago aukera ordezkaritza alta emateko (espediente mota bera izapidetzeko), Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroaren bidez [Registro electrónico de apoderamientos - Sede electrónica - Euskadi.eus](https://registro.euskoj.eus/registro-electronico).

4 Izapidetzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, izapide hauek egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea. Datuak egiaztatzea, dokumentazioa aztertzea eta, behar izanez gero, dokumentuak eskatzea.
2. Datuak jatorrizko espedientearekin egiaztatzea eta, egoki iritziz gero, aurreko titularrari jakinarazpena egitea.
3. Txosten teknikoa.
4. Entzunaldia ematea pertsona edo entitate interesdunei, alegazioen bat izan baldin bada.
5. Ebazpena ematea.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren Erregistroan inskribatzea ofizioz.
7. Behin-behineko inskripzioen kasuan, ikuskapen-bisita bat egingo da, eta, horretarako, aurretik, zitzak egingo zaio eskatzaileari. Ikuskapen hori akta batean jasoko da, ondoren ebazpena emateko eta, hala badagokio, inskripzioa behin betiko bilakatuko da.

Espedientea izapidetzen amaitu ondoren, Uraren Euskal Agentziak egokitzen jotzen dituen zaintza-, ikuskapen- eta egiaztapen-lanak egingo ditu, ebazpena betetzen dela bermatzeko eta jabari publiko hidraulikoa zaintzeko.

5 Ebazpenaren ondoreak

Ebazpenak amaiera emango dio hasitako administrazio-prozedurari.

Eskualdaketaren ebazpenak legitimazioa ematen dio ur-aprobetxamenduaren titularrari hura erabiltzeko. Titular berriak, gainera, aurreko titularrak zituen eskubideak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren aurrean, HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

6 Ebazteko epea

Uraren Euskal Agentziak gehienez ere sei hilabete izango ditu aprobetxamendu hidrauliko baten titulartasun-aldaketaren prozedura ebazteko.

Berriazko ebazpenik ez badago, inola ere ezin izango da ulertu baimena presuntzioz baietsi denik.